

» DISKOA

Dekadentzia dantzan jarrita



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara


Bitxia da euskal pop erradikala egiten duzula esatea. Baina aitortu behar da kontzeptuan erradikal samarrak direla, horrez gain, 80ko hamarkadaren –hemengo eta kanpokoaren– nostalgiko sutsuak direla –nahiz eta horien artean behingoz garaiko punk taldeak albortu dituzten, eskerrak!– eta bestelako estiloetatik –gehienetan dantzagarrietatik– ere gogoz edan eta batzuetan hortik mozkortzen direla.

Zazkel 2012an sortu zen Bilbon. Oso argi zuten beste garai bateko talde euskaldunak omendu, euskaraz abestu eta musika dantzagarria egin nahi zutela. Erritmo kaxa baten laguntzarekin kantak idazteari ekin zioten eta 2016an *Zazkel* lan luzea autoekoiztu zuten. Sintetizadore eta teklaturen pisu handiarekin, euskaraz abestutako 10 pieza elektroniko, beltz eta batez ere *ochentero* erditu zituzten, dantzagarriak eta kitsch samarrak. Urte berean Banden Lehiako saria eskuratu eta horren bitartez disko hau kaleratu zuten.

Seikoteak lortzen duena emaitza oso freskoa da, irreberente samarra –onerako– eta dantzagarria, baina oraingoan –aurreko diskoaren kontrara– 80ko hamarkadako kantez duten nahita egindako kutsu *dekadente* horretan jausi gabekoa. Lan honetan hobeto ezkondu dituzte gustukoak dituzten eraginak. *Titaniozko sudurrak* hit!a da, kutsakorra: umoreak moztortzen du daraman kritika zorrotza eta sintetizadoreek gidatuta house erritmoek eta rapeatuek *in crescendo* garamatzate dantzara. *Eremu mortua* oso melodikoa eta barnerakoa da, ederra; gitarra eta baxu oso zainduekin

Ez entzun ZAZKEL

Baga-Biga Produksioak, 2017



80ko hamarkadako euskarazko pop taldeak eta post-punka ederkiki fusionatu dituzte. *Infernuko atean* Hertzainak-en piezaren errebisioa da, gitarreroago eta tarteka Azaharago. *Bazka ederra* beltza da erabat; funkya, eta baita goxoa eta poperoa. *Apirilak 5* pop-aren eta hard-rockaren arteko lehia, Su Ta Gar-en parekoa. *Ez entzun*-ek gure iraganeko belaunaldiaren gitarra gardenak ditu ikur eta pop-rock itsaskorra da, nahiz eta funkya lagun izan. *Afera ustela* jostagarria da, funkya, beroa eta M-ak-en izpiritua barreiatzen du, nahiz eta azkenean soul ospakizun bihurtu. Eta, diskoa ixteko, Kryzc doktoreak oparitutako remix techno-rapeatu-errezitatua. ■



2012 urte aldean sei lagunek osatu zuten Zazkel taldea Bilbon.